

Udaleko ingurumen batzordea

Batzarreko akta

Data: 2011-10-7

Lekua: Ondarroako udala

Bertaratuak: Oier Espilla (batzordeko lehendakaria), Aitor Maruri, Arkaitz Otsoantesana, Joseba Zabaleta, Ibai Muñiz, Miren Jone Beitia, Txaro Elu, Irene Zaton, Mari Cruz Lekunberri

1 – Ondarroak ingurumen aldetik dituen arazoak aztertu eta egin daitezkeen ekintzak proposatu dira.

- ZABORRA ZELAN KUDEATU

- Konpostajerako 5. kontenedora premiazkoa ikusten da. Atez atekoa gatxagoa ikusten da bideratzeko orduan.
- Zaborraren kontsumoa gutxitu eta birziklatu beharra.
- Jasangarritasunaren ideia hezkuntzatik landu beharra ikusi da.
- Ohiturak aldatu beharra, inguruko garbitasuna mantentzeko. Hondartzan kristalak egoten direla, lurrean txikleak.
- Kontenedore horiak falta direla hondartzan.
- Herriko zamarran kontenedore guztiak Zaldupeko alboan. Usain eskasa egoten dela.
- Alfonbrak bentanatik astintzea galazota dagoela Donostian. Ondarroan kontixu ez. Kotxe batzuk kalean garbitzen direla.

-ETXEBIZITZA.

- Udaletxe moduan ordenantza bat egin etxe barrien kontsumoari begira.
- Herrian etxe asko hutsik.

- KONTSUMO ARDURATSUA

- Paradigmak aldatu beharra kontsumorako. Elikadura, ingurumenarekin lotuta.
- "Plaza berduri" bultzatu eta konpondu beharra. Gaztik ez direla asko joaten. Jende heldua bakarrik.
- Agenda 21egaz, aurten elikadura arduratsua landuko da. Bertako kontsumoa bultzatu.

-IRISGARRITASUNA

- Bizikleta alternatiba latxeik. Lehentasuna kotxeei ematen zaie. Kotxea ez erabiltzera bultzatu behar da jendea.
- Norabide bakarreko bidea txarto irisgarritasunari begira. Aurreko legegintzaldian pintatutako markak ez dira ondo ulertu.
- Gurgildun aulkiagaz, umeen kotxeagaz, bizikletagaz... ibiltzeko zailtasunak herri barruan.
- Herriko leku ezberdinetan bizikleten alkilerria.
- Herri barrua oinezkoentzat lehenestu.
- Mikro piboteak kendu, eta altuagoak egon behar litzatezkeela. Jendeak mina hartu izan duelako. Herritarrak hezita egongo balira, pibote beharrik be ez.
- Herria ezin dela hazi kotxeen eraginaren menpe.
- Lehen bizikletagaz joaten zirela ikastolara, baina ez zela erraza izaten.
- Ikastoletako autobusa kentzea ez dela lortu. Autobus batzuk kentzeko asmotan dabilta. Urbano ezin erabiltzearen arazoia, ikastetxe bakoitzak klaseak hasteko dauzkan ordutegi ezberdinen arazoa da.
- Txorierrekako semaforoak arazoak sortzen ditu. Losa falta Arrigorritik zehar, bidea gurutzatzeko.

- KALEKO ARGIAK

- Argi falta, Kalatraba azpiko tunelean. Eta Txorierrekako pasiloan ere bai, etxeen tartean.
- Argi kutsadura. Errekara begira dauden argiak, kokapen ezegokia. Ikerketa bat egin beharko litzateke ikusteko non dauden sobre argiak. Kontsumoan ezegokiak izateaz gain, ekosistemari kalte egiten diolako.
- Etxebizitzan alboetan dauden farolen kokapena be, bertan bizi den jendea kontutan hartuta egin behar dela. Kasu askotan, farolak egokitu daitezkeela modu ezberdinetan.
- Argien ordutegia be zaindu beharreko gaia dela. Interruptoreak, sensorrak etab., lekuen arabera ikusi behar lirateke.
- Leku batzutan argi batzuk be faltan botatzen dira.
- Herri askotan izarrak ikusi ahal izatea errebindikatzan dela. Gaur egun Ondarroan lekuri ez dela horretarako.
- Gabonetako argien gaia. Asko soberan daudela. Hilabete arinago hastea be sobera dagoela.
- Honegaz batera, gabonetako *tren txutxu* be behar ez den kontsumoa dela. Kutsadura akustikoa. Motorrak, petardoak, tabernak...
- Argiena emakume batzordeagaz elkarlanean egin beharko dela.

- "TENDIDO ELEKTRIKOAK"

- Haria etxe batzutatik gertu doala eta, ea beste alternatibarik ez dagoen.
- Zubi Zahar ikastolan, barruan daukatela. Ahalegindu izan direla, baina borondaterik ez daukatenak, argi konpainiak direla. Iberdrolak irabazitako tokiak ukituezinak direla.
- Ordenantza bat egitea komeni.

-MUTXILOI HAZTEGIAREN PROIEKTUA

- Oraindik proiektu piloto bat dela. Gure aurre disposizioa badela, baina onartzeko asko falta dela oraindik. Proiektua ikusi daitekeela, jentegaz batu garena, eta batzorde modura aztertze dagoela erabakia hartu aurretik.
- Ingurumen azterketa egin beharko litzatekeela.
- Arlo ekonomikoa herrian geratu behar dela. Adibidez, Galizian Pescanovagaz sortutako gatazkak aipatu dira.

-ISURKETAK

- Hondartzetan agertutako plastiko pieza batzuen plaga aipatu zen. Bertan momentuan jaramon gehiegirik ez zitzaiola egin udaletik.
- Araztegiko ur zikinena aztertze. Arduradunekin egon beharra azpimarratu da.
- Erreketako ura ea analizaten den galdetu da.
- Isurketak sarri gertatzen direla, eta honen aurrean zeozer landu beharko dela.

- HERRIKO ZUHAITZAK

- Ondarroan zehar ostera bat herriko umeekin arbolak ezagutzeko.
- Herrian dauzkagun arbolen mapa bat egitea komeni.
- Arbola batzuk, jatorritik gunez kanpo daudela, eta estetika hutsari begiratu barik kokatu behar direla.
- Txomin Agirreko jolaslekutik kendu zituztela eta zemento hutsa dagoela.
- Zubi Zahar ikastolatik eskaera bat; arbolak inauteko sasoiari, parkeko arbolekin batera ikastolako arbolak be inauten zituztenela lehen, eta aurten ea jarraitu daitekeen berdin egiten.
- Antiu aurreko arbola batek korterik ez dauka eginde. Orriak makalduta. Izan daiteke inguruko zementoaren ondorioz. Lekua zabaltzea izan daiteke irtenbidea.
- Udaletxeko beharginek mozten dituzten adar arbolak be konpostatzea proposatu.

-AGENDA 21

- Aurten erosketa berdea eta kontsumo arduratsua landuko direla. Bi urtean behin proiektu bat lantzen dela.

- Agenda 21 CEIDAKoek koordinatzen dutela. Urte bukaeran udal foro bat egoten dela. Ikastetxeak Guzurretxean batzen dira. **Beste enpresa batek udal foroa antolatzen laguntzen zuen.**
- Umeak konpromisoak hartzen joaten dira. Honetarako, herri mailako proposamen bat egiten da.

-BATZORDEARI BURUZ

- Ea nora ailegatzen den ingurumen batzordea. Azalpen bat eman zen: batzordeen funtzionamendu interdisziplinarra bultzatzen dela udaletik. Batzordean esandakoak eragina dauka beste batzordeetan, eta udal erabakietan ere bai.
- Ea teknikaririk zergatik ez den etortzen; bat eukiko dugula aurrera begira.

2 - **Batzordea batzeko egunaren eta ordutegiaren proposamen ezberdinak.**

Kideetako batek eguna pixkat txarto etortzen zaiola komentatu zuen. Bakoitzak bere aukerak aipatu zituen, eta ostiralean baina ordubete aurretik batzea erabaki zen. Eguna, zehazteke.